



BAZTANGO UDALA

EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA

2024-2027

AURKIBIDEA

1. SARRERA	03
2. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA BAZTANEN	04
3. PLAN ESTRATEGIKOA: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana	06
4. PLAN ESTRATEGIKOAREN ARDATZAK BAZTANEN	06
5. ARDATZAK	07
5.1. GOBERNANTZA	08
5.2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK	12
5.3. EZAGUTZA / GAITASUNA	18
5.4. ERABILERA / ELKARRERAGINA	23
5.5. IKERKETA / BERRIKUNTZA	25
6. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	26

1. SARRERA

BAZTANGO Udalak 2024-2027 bitarteko Euskara Planaren erronka nagusiak irudiztatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesu bat sustatu du. Aipatutako prozesuak egungo eta etorkizuneko helburuak marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak paratuko ditu.

2024-2027 plan estrategikoa da esku artean duzuna. Alde batetik, Nafarroakoa oraindik onartua ez dagoenez, Eusko Jaurlaritzak proposatuko duen AROA marko orokorrean oinarritu gara, eta bertetik, BAZTANGO ezaugarri eta beharrei egokitutakoa. Akitzeko, Euskara zerbitzuak eskainitako informazioa ere inportantea izan da planaren garapenerako.


Hori horrela izaki, kontuan hartu behar dugu BAZTAN UEMAko udalerria dela. Beraz, udalerrri euskaldunen zaintza eta garapena, eta bertako herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzeari garrantzia handia emanen diogu.

Horretaz gain, bertze euskara zerbitzuekin batera aritzen gara elkarlanean. Alde batetik, eskualde mailan Malerreka eta Bortziriarekin batera lantzen ditugu programak: euskaraz erosi herrian erosi, solaslaguna, turismoa... antzeko egoera soziolinguistikoa dugu eta herritarrak eskualdean mugitzeko ohitura dute. Mugaren bertze aldean ere baditugu hartu-emanak, Baigorriarekin hain zuzen ere. Hari horri tiraka ere lanean segituko dugu. Eta azkenik, Nafarroako gainontzeko euskara zerbitzuekin batera lantzen ditugu hainbat proiektu.


BAZTANGO euskararen plan estrategikoa 2024-2027 Udalbatzari onartzeko proposamena egingen zaio, 2024ko apirilko Osoko Bilkuran.

2. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA EREMU EUSKALDUNEAN

HIZKUNTZA-ezagutza 2021



KALE ERABILERA 2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra eta UEMA

Oharra: "BAZTANGO euskararen diagnostiko txostenean" egoera soziolinguistika atalean grafiko hauen azalpenak jaso dira.

Baztan euskararen arnagune izanik euskararen ezagutza maila altua da. Herritarren % 74,1 euskalduna da, % 11,3 ia euskalduna (euskara ulertzen dute nahiz eta ez solastatu) eta euskaraz ez dakitenak % 14,6. Datu horiek erakusten digute baztandarren % 85 euskaraz ulertzeko gai dela, beraz, lanerako arras datu interesgarria da, ulermen maila altuko eskualdean baikaude. Hala ere, % 14,6 euskarara hurbildu behar ditugu eta horretarako erremintak sortu eta bide berriak zabalduko ditugu.

Erabilerari dagokionez, ohikoa den moduan, ezagutza baina txikiagoa da. Hala ere, hemen jasota ditugun datuak orientagarriak dira 15 herrien banazbertzekoa jasotzen baita. Diagnosian ikusi dugun moduan, datuek erakutsi dute erabilera pixka bat igo dela, baina errore-marjina nahiko handia da. Azken azterketek erakutsi dute eremu euskaldunetan erabilera datuek ez dutela goraka egin, trabatuta geratu dira, eta ondorioz, gure helburuetan jasoko dugun eremua izanen da, hau da, erabileran eragitea.

3. I. PLAN ESTRATEGIKOA: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana

BAZTANen euskara sustatzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentua da Euskararen Plan Estrategikoa; hurrengo urteetan BAZTANen euskara indartzeko herritarrek eta Udalak izanen duten lanerako tresna.

BAZTANGO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUA 2024-2027

Gure gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzat marko eta bide orria eskaintzea datorren urteetarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko. Bertzela erranik, BAZTANGO udalerrian euskararen erabilera handitzea, batez ere haur eta gazteen eremuan. Horrez gainera, Baztanera bizitzera etorri berri direnei euskara ikasteko bidea erakutsi eta erraztea du xede. Era berean, eragileekin elkarlana lantzea eta sinergiak batzea.

4. PLAN ESTRATEGIKOAREN ARDATZAK BAZTANEN

Hauek dira lehenetsitako ARDATZAK, euskararen ezagutzaren eta erabileraren aldeko aurrerapausoak emateko:

1. GOBERNANTZA
2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK
3. EZAGUTZA / GAITASUNA
4. ERABILERA / ELKARRERAGINA
5. IKERKETA / BERRIKUNTZA
6. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA



5. ARDATZAK - 1. GOBERNANTZA

G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
1.1	Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-eskubideen diskurtsoa indartu Kanpo-erasoei aurre egiteko estrategia adostu instituzioen eta euskalgintzaren artean 				
1.2	Koordinazioa eta osagarritasuna sustatzea eremu instituzional zein sozialean.				
	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak...saretu UEMAren plan estrategikoa eta Udaleko plan estrategikoa bateratu elkarren osagarri izan daitezen Euskararen erabilera planaren jarraipena egiteko batzordea osatu (UEMA) eta urtean gutxienez 3 bilera egin 				
1.3	Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Udal hautetsi, herrietako alkate-juratuak eta langileak sentsibilizatu eta motibatu euskararen normalizazioan duten egitekoari dagokionez, UEMArekin elkarlanean. Lidergoa partekatu eta aktibatu, euskarak zehar lerroko gai bezala dagokion tokia izan dezan. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu. 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, Herriak, UEMA, eragile sozialak					

G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntza nahiz kulturekin bizikidetzan

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
2.1	Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Bilakaera demografikoak dakartzan hizkuntza-erronkei aurre egiteko, tokian tokiko estrategiak landu eta ekimenak bultzatu 				
2.2	Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen normalizazioak edozein gizarte esparrutan duen garrantziari buruzko markoa zedarritu, aplikaziorako metodologia garatu eta jarraipena egin 				
2.3	Gizartearen aniztasuna kudeatzea euskara ardatz izanik.				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskara biziberritzearen aldeko eta gizarte-berdintasunaren aldeko politikak uztartu, elkarrengandik elikatu. 				
	<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasleak, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, herriak, UEMA, ikastetxeak, Guraso Elkarteak, eragile sozialak, tokiko hedabideak.					

G.3. Euskararen biziberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
3.1	Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratzea.				
	<ul style="list-style-type: none">Hizkuntza gutxituen komunitateen arteko lan-sareak hedatu eta sendotu				
	<ul style="list-style-type: none">Formazio soziolinguistikoak eskaini				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, herriak, ikastetxeak					

5. ARDATZAK - 2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK:

JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
1.1	Euskaldun izatearen kontzientzia eragitea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Ingurune digitalak, ikus-entzunezkoek, kultur arloak... eskaintzen dituzten aukerak eta duten indarra baliatu motibazioan eragiteko. Sare sozialetan aktiboki parte hartu. 				
	<ul style="list-style-type: none"> Abizenak euskalduntzeko kanpaina. 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu. 				
	<ul style="list-style-type: none"> Sentsibilizazio eta erabilerari prestigioa emateko kanpainak egitea. 				
1.2	Gizartea aktibatzeke esperientziak indartzea eta hedatzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Paisaia linguistikoan hizkuntza hautuan "klik" bat egiteko kartelak : parkean "haurrak euskaraz ari dira, eta zu?", "Lagunekin euskaraz ari al zara?" 				
	<ul style="list-style-type: none"> Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraldia sustatu 				
1.3	Hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egitea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Ahalduntze saioak eskaini: arnaguneen tailerra, motibazio saioak 				
	<ul style="list-style-type: none"> Errenta aitortpena kanpaina 				
	<ul style="list-style-type: none"> Arnaguneen errealitatearen eta garrantziaren gaineko hitzaldiak eskaini (Iñaki lurrebaso) 				
	<ul style="list-style-type: none"> Bizkarsoro filma eskaini 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, Herriak, eragile sozialak, tokiko hedabideak					

JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
2.1	Euskararen erakargarritasuna lantzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Gazte erreferente euskaldunak, bultzatu, ikusgarritasuna eman 				
	<ul style="list-style-type: none"> Sare sozialetan euskararen erabilera bultzatu 				
2.2	Euskal hiztun-mota eta komunikazio-egoera askotarikoak balioestea				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztanen egiten diren (euskal) kultur-ekintzen zabalkundea eta saretzea 				
2.3	Euskarara hurbildu ez diren atzerritar jatorriko herritarrak euskarara erakartzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu. 				
	<ul style="list-style-type: none"> Etorkinak integratzeko jarduerak (inklusiboak) antolatzea, haiek protagonista izanda 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak					

JM.3. Haur eta gazteen euskarazko sozializazioa eta aktibazioa

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
3.1	Gazteen artean euskararekiko kontzientzia sortzea eta areagotzea, eta erabilera indartzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Bideo laburrak: gazteen intereseko gaiak bilatu haiengana hurbiltzeko (zeharka euskara landu) 				
	<ul style="list-style-type: none"> Bertsolaritza irakaskuntzan 				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztango mintzoak lantzeko tailerrak 				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztango hizkera gazteen beharretara egokitu: hizkera informala 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskarabidea eta HPSrekin batera elkarlanean antolatzen den Arnasa gara kanpaina herrira zabaldu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztanen nola? Egitasmoaren jarraitu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Kerizu beretik proiektuan parte hartzen segitu 				
3.2	Gazteen artean kultur sorkuntza eta euskarazko kulturen murgiltzea sustatzea				
	<ul style="list-style-type: none"> "Irakurriz gozatu" egitasmoan parte hartu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Ekitaldiak antolatu gazteekin elkarlanean, musika, antzerkia... 				
	<ul style="list-style-type: none"> Literatura-geraldiak antolatu 				
3.3	Aisialdian aritzen diren arduradunen euskararekiko jarrera eta aktibatzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileendako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza tekniko antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materialak...) hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan 				
3.4	Familiak haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantziaz ohartaraztea.				
	<ul style="list-style-type: none"> 3 urteko haurren aurre matrikulazio garaian gurasoen eta familien hizkuntza profileko datuak eskuratu ikastetxeetan 				

	<ul style="list-style-type: none"> • 5 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantzia azalduz 				
	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoentzako sentsibilizazio saioak 				
3.5	Haur eta gaztetxoendako euskarazko aisialdi eta kultur eskaintzaren berri ematea.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Euskarazko produktuen katalogoa (paperezkoa, digitala eta bertzelako euskarriak) banatu 				
	<ul style="list-style-type: none"> • Pauso eta Salto udalekuak (UEMA) sustatu 				
	<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako Teknikarien Sareak kudeatzen duen era.eus webguneko eskualdeko kultur eta aisialdi agenda elikatu eta edukiak zabaldu 				
3.6	Kanpotik Baztanera bizitzera etorritako ikasleen euskarako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna kontuan hartuta.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeekin laguntza programak adostu 				
3.7	Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoendako egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta euskara indartzea uztartuz.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeekin laguntza programak adostu 				
3.8	Ikasleen euskararekiko jarrera aktibatzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza maila guztietan ikasleei baliabideak eta formakuntza eskaini, hizkuntza jarreraren inguruan eta zehazki arnaguneen garrantziaren inguruan; ekintza UEMAREN HEDATU programaren bidez garatuko da 				
	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleentzako saioak eman: Ispiluari Begira, Bagoaz, Bixitailerra, Batxitailerra 				
	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikan eta erabilera estrategietan 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, AEK, ikastetxeak, guraso elkarteak, tokiko hedabideak					

5. ARDATZAK - 3. EZAGUTZA / GAITASUNA

EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
1.1	Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jartzea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztango Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu Etxepare literatur sariketa antolatu eta lan sarituak zabaldu Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu liburuen gomendioak eginez, tokiko komunikabideekin eta liburutegiekin elkarlanean Euskal musikaren gomendioak egin, tokiko komunikabideekin eta musikariekin elkarlanean. (H)ilbeltza beka laguntzen segitu 				
1.2	Etxean euskararen presentzia ahalik eta handiena izan dadin eta jarrera aktiboa izan dezaten familiaren motibazioan eragitea.				
	<ul style="list-style-type: none"> Haur jaioberriak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi. Euskaraz ez dakiten gurasoei hitzaldiak, tailerrak, baliabideak... eskaini. Haurrekin erabiltzeko euskarazko kantu, jolas, formula eta antzeko baliabideak eskaini. 				
1.3	Hezitzaileei eta irakasleei prestakuntza eta baliabideak eskaintzea hizkuntza- kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.				
	<ul style="list-style-type: none"> Hezitzaile zein irakasleendako ikastaroak : hiztegi teknikoa, praktika soziolinguistikoan inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini, Baztanera ikastaroak... 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, Kirol taldeak, Guraso Elkarteak, Kultur elkarteak, tokiko hedabideak					

EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
2.1	Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitzea eta tresnak sortzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Interes komunak dituztenendako tailerrak, barnetegiak 				
	<ul style="list-style-type: none"> Eremu sozioekonomikoan prestakuntza berezitua eskaini, eskaintza instrumentala helburu zehatzetarako: komertzialak... 				
2.2	Euskara ikasteko aukera berriak sortzea eta baldintzak erraztea				
	<ul style="list-style-type: none"> Estrategia berriak landu ahozkotasunean aurrerapenak eragiteko 				
	<ul style="list-style-type: none"> AEKrekin – Suinki euskaltea- hitzarmena 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskara ikasteko dirulaguntzarekin jarraitzea 				
2.3	Herritarren artean euskararen ezagutza handitzeko, euskalduntze-alfabetatzea prestigiatzea eta sustatzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina egin 				
2.4	Euskara ikasten ari direnei erabilerara jauzia egiten laguntzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Solaslaguna programarekin segitu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Elaide.eus garatu, Nafarroako euskara zerbitzuak elkarlanean sortutako webgunera, euskara ikasleak motibatu eta erabilerarako jauzia emateko baliabideak eskuratzeko 				
2.5	Hitanoaren erabilera eta hedapena sustatzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Hitanoaren erabileraren inguruko formazioa antolatu 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, Guraso Elkarteak, AEK Suinki euskaltea					

EG.3. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
3.1	Euskara gaitasuna hobetzen laguntzea, adierazkortasunari bereziki erreparatuz.				
	<ul style="list-style-type: none"> Bideo laburrak: gazteen intereseko gaiak bilatu haiengana hurbiltzeko 				
	<ul style="list-style-type: none"> Bertsolaritza irakaskuntzan 				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztango mintzoak lantzeko tailerrak 				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztango hizkera gazteen beharretara egokitu: hizkera informala 				
	<ul style="list-style-type: none"> Eskaintza pertsonalizatu (adinaren arabera) Batxilergoa, ikastetxeetan guraso edota aitona-amonentzako eskolak eskaini eskola-ordutegietan. 				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztanen nola? Egitasmoaren jarraitu 				
3.2	Helduak euskalduntzeko eskaintza egokitzea dauden egoera ugarietara.				
	<ul style="list-style-type: none"> Jubilatuak (alfabetatze ikastaroak) 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, AEK, ikastetxeak, tokiko hedabideak					

5. ARDATZAK - 4. ERABILERA / ELKARRERAGINA

EE.1.Euskaraz bizitza arrunta izango den gune sozio-funtzionalak indartu eta berriak sortu, eremu geografikoa edozein izanda ere.

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
1.1	Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragitea				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz ez dakitenentzako tailerra eskaini eta xede-taldearen arabera egokitu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan 				
	Jarreran zein gaitasunean landuko baita				
1.2	Aisialdi antolatua eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatzea eta orokortzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Txapelketak erabilera xede dutenak 				
	<ul style="list-style-type: none"> Udako jostaldia 				
1.3	Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan herritarrei euskaraz arreta bermatzea eta erabilera areagotzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntza eman eta jarraitu 				
	<ul style="list-style-type: none"> "Herrian erosi, euskaraz erosi" egitasmoa garatu, material eta zerbitzu eskaintza zabaldu. 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz barra-barra egitasmoaren jarraipena egin 				
	<ul style="list-style-type: none"> Lanbideei begirako oinarrizko ikastaroak eskaini (Euskara Plus, Euskara Zero...) 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen oinarrizko ezagutza bermatzeko baliabideak eskaini merkatariei eta ostalariei: hiztegitxoak, itzultzaileak... 				
1.4	Ingurune digitalean euskara eroso erabiltzeko espazioak irabaztea				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskarazko hedabideak bultzatzea 				

	<ul style="list-style-type: none"> Eskualdeko komunikabideak babestu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskarazko kultur-produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko 				
1.5	Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahalduntzea euskara erabil dezaten				
	<ul style="list-style-type: none"> Ariguneak identifikatu 				
1.6	Baztanera datozen bisitari eta turistak euskarara hurbiltzea eta euskara prestigiatzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztan-Bidasoko turismo aldeko eragileekin elkarlanerako gunea sortu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Bisitari eta turistei euskararen berri emanen dieten euskarriak sortu eta zabaldu, euskara (agurrak, esapide laburrak...) erabiltzera bultzatuz. Turismoa: "Ongi etorri, hemen euskaraz bizi gara" hiztegitxoa 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua, tokiko komunikabideak, merkatariak					

5. ARDATZAK - 5. IKERKETA / BERRIKUNTZA

HELBURU ZEHATZAK		2024	2025	2026	2027
5.1	Egoera soziolinguistikoaren ezagutzan aitzinera egitea, beharrak eta lehentasunak egoki diagnostikatzeko				
	<ul style="list-style-type: none"> Herriz herriko ezagutza eta erabilera neurketak 				
	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen bilakaera soziolinguistikoa aztertu 				
5.2	Baztango errealitate soziolinguistikoaren ikerketak egitea				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztango ikastetxeetako matrikulazio datuak bildu eta bilakaera aztertu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Baztango euskaltegiko datuak bildu eta bilakaera aztertu 				
	<ul style="list-style-type: none"> Etorri berrien aniztasunaren inguruko datuak bildu 				
5.3	Ikerketa orokorra, hobekuntzak lortzea eta trebatzea				
	<ul style="list-style-type: none"> Tresna teknologiko berriei dagokien trebakuntza jaso (IKTak, administrazio elektronikoa, telelana, bideo-komunikazioa...) 				
	<ul style="list-style-type: none"> Zehar lerroetako gaiei dagokien trebakuntza jaso: generoa, ingurumena... 				
	<ul style="list-style-type: none"> Soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari dagokion trebakuntza jaso 				
Arduradunak: Baztango Udala, Euskara Zerbitzua					

6. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

KOMUNIKAZIOA ETA GARDENTASUNA

Urteko planen ebaluazioa (memoria) eta plan estrategikoaren ebaluazioa euskarri eta eredu berera ekarriko dira. Hartara, plan estrategikoaren ebaluazioa urteroko planen ebaluazioarekin hasiko da, eta horien guztien bateratze eta sintesitik lortuko da plan estrategikoaren ebaluazio orokorra, plangintzaldiaren amaieran eginen dena.

Komunikazioa:

- Udal barnean: udal langile, alkate-juratu eta hautetsi guzietan ezagutzera eman plana. Langile, alkate-juratu eta hautetsi berriei egiten zaien jarrera planaren barnean Plana ezagutzera eman. Plana eskura izan.
- Herritarrei: Plana ezagutarazteko tokiko hedabideetara informazioa igorri eta udaleko web gunean eskuragarri jarri.
- Urteroko Planaren jarraipenak ezagutzera eman: Euskara batzordean urtero jarraipena egin.
- Sare sozialetan: Planaren onarpena eta garapena ezagutzera eman, pilula moduan.

EBALUAZIO SISTEMA

Helburuei begirako ebaluazioa

Planean aurreikusitako helburu orokorra, helburu zehatzak eta arloz arlokoak ebaluatuko dira. Honako galdera hauei erantzunen zaie: planean aurreikusitako helburuak bete dira?, horiek betetzetik hurbilago dago plangintzaldiaren amaieran?, abian jarritako egitasmo eta jarduerak, finean, zein emaitza eta eragin izan dute helburu horiek betetzeari begira? Helburuen ebaluazioa batez ere plangintzaldiaren amaieran jorratuko da.

Jardueren gauzatze mailari buruzko ebaluazioa

Jarduerak ebaluatzeko lehenbiziko neurgailua gauzapena da, aurreikusitako dena delako hori egin ote den eta zenbateraino. Honako galdera hauei erantzunen zaie: jarduera burutu da?, eta ezezkotan, zergatik? Modu horretan, informazio kuantitatiboa (burututako/burutu gabeko jardueren kopurua) eskuratzeko aukera izanen da plangintzaldiaren bukaerarako. Excel dokumentu bat erabiliko da gauzatze maila neurtzeko (gauzatze mailaren tresna).

Adierazleak

Urteko planen eta plan estrategikoaren ebaluazioa egiteko, hainbat adierazleren joerari edo portaerari erreparatuko zaie. Adierazle batzuk kuantitatiboak dira, eta, bertzeak, kualitatiboak. Hortaz, datu objektiboen bilakaera eta aktore sozialek errealitatearen gainean egiten duten interpretazio kualitatiboa, biak ala biak, izanen dira lehengaitzat ebaluazioa egiteko garaian.

Batetik, ekintzen gauzapena neurtzeko eta horien eragina ebaluatzeko, eta, bertzetik, helburuak bete ote diren eta zenbateraino ebaluatzeko, honako adierazle hauek hartuko dira aintzat:

- Kuantitatiboak: datu soziolinguistikoak (hizkuntza gaitasuna, erabilera, lehen hizkuntza, matrikulazio datuak, etab.), antolatutako jarduera, ekitaldi, tailer, ikastaro kopurua, parte hartzaile kopurua, generoaren araberako parte hartzea, irismena (banatutako materiala, ikustaldiak, harpidetzak, audientzia), ekintzaren kostua, dirulaguntza eskaera kopurua, ebatzitako dirulaguntza kopurua, dirulaguntzen zenbatekoa, etab.
- Kualitatiboak: teknikarien ebaluazioa, sareko lan taldeen ebaluazioa, udal erabilera planen ebaluazio txostenak, ikerketa soziolinguistiko kualitatiboak, euskara batzordeen edo gogoeta prozesuen bidezko ebaluazioa, dena jarduerari dagokion ebaluazio txostena edo memoria (erraterako, Solaslagunari edo Euskaraldiari dagozkionak), eta dena delako jardueraren erabiltzaileen iritzia (gurasoak, ikasleak, irakasleak, haurrak, gazteak, etab.).

PLANA GARATZEKO BALIABIDEAK

Planaren ardura udal osoarena bada ere, Planaren sustapena, jarraipena eta ebaluazioa bere gain hartuko duen pertsonal kualifikatua beharko du Baztango Udalak, hau da, euskararen sustapenari buruzko ezagutza espezifiko duen udal teknikaria.

Horrez gain, planeko ekintzak garatzeko aitzinkontu ekonomikoa beharko da. Horretarako, urteroko programazioan aurreikusi beharko da ekintzetarako behar dena, aitzin kontuetan isla izan dezan.

PLANA BUKATUTAKOAN

Plan osoaren garapena eta asebetetzea neurtzeko kanpoko erakunde batek planaren ebaluazio txostena egingen du, modu objektiboan neurtu eta aitzinera begirako gakoak identifikatzeko.